

4.KANALAK

Kanalak enpresak bezeroei produktua saltzeko erabiltzen dituen bide komunikatibo eta fisikoak dira. Prozesu honetan dena ondo joan dadin, kanpo komunikazioa dago; bezero eta hornitzaileekin harremana mantentzeko eta barne komunikazioa dago; enpresaren barruan lagileen arteko harreman eta komunikazioa. Hauetaz baliagotuko gara dena erraztu eta koordinatzeko.

KOMUNIKAZIO KANALA

Komunikazio atala gure bezeroei iristeko bidea da. [Jendeak honi buruz jakiteko komunikazio](#) zteko hainbat metodo erabiliko ditugu. Kanal zuzen eta zeharkako hauen bidez, ospea eta salmentak lortzea da helburua. Komunikazio kanal bakoitzak bezero desberdinak erakarriko ditu, hori dela eta modu hauek ditugu gure produktua jendeari iristeko:

- WEBGUNEA

Produktua bai fisikoki bai online salduko da. Online saltzeak aukera gehiago ematen digu produktua edonon saltzeko. Horretarako, webgune bat sortuko dugu, non produktuari bideratutako informazioa eta honen eskaera egiteko aukera ageriko den. Honen izena www.dulppsensair.com da.

Gure produktua denbora falta eta garbiketa bermatu nahi eta alergiak edo asma dutenentzat da. Egia da, adineko pertsonak ez daukatela online erosketak egiteko erreztasuna hainbat arrazoiengatik; mugikorra ez edukitzea, txartela online erosketetan erabiltzen ez jakitea, zuzenean mugikorra izatea baino ez ulertzea ea nola erabiltzen den,..etab. Hori dela eta, webgunean erreztasunak jarriko ditugu zuzenean produktuaren erosketara iristeko. Nahiko sinplea izango da.

BEZERO HARRETA

Edozein arazo edo aholkuekin zuzenago laguntzeko, korreo bat eta zenbaki bat daude eskuragarri. Hauek bulegoekin harremanetan jartzen dira eta bezeroekin komunikatuko gara.

sensair@dulpp.com

+91 339 56 60

- INSTAGRAM @sensair



Aplikazio honetaz baliatuko gara produktua ezaguna egiteko. Gaur egun, instagram edozein produktuaren komunikazio kanala da. Reels eta post-ak erabiliz eta hashtag-ak sortu/erabiliz produktua ezaguna egitea da helburua. Instagrametik gure webgunera bideratuko ditugu bezeroak. Marketing estrategiak sartuko dira honetan, erakargarria egin behar dugulako “Sensair”. Bestalde, sare sozial honetan pertsona ezagunak daude, etxe antolamenduari eta familiei buruzko edukia egiten dutena. Influencerrak deitzen zaie eta kolaborazioak eta deskontu kodeak eskaini ahal dizkiegu pertsona hauei. Gure produktuak asetzen dituen aldeak begiratuta (Bai garbiketarako, familientzako perfektua eta bai ongizatea bermatzeko) perfil interesgarriak huaek dira:

@la_ordenatriz Emakume ezagun bat aholkuak ematen dituen egunerokortasuneko garbiketari buruz. Askotan agertu da albisteetan eta emakume askok bere “tip”ak jarraitzen dituzte eta gomendatzen dituen produktuak erosten dituzte. Aukera aparta da Sensair ezaguna egiteko, 2M jarraitzaile dituelako.

@luciamipediatra Espainiako pediatra, idazle eta zientzia-komunikatzailea da, eta hainbat alditan Espainiako mediku onenetako bat bezala aitortua izan da. Osasunari buruz hitz egiten du haren sare sozialetan eta honetaz baliagotu gaitezke gure produktuari ez soilik antolamendua eta garbiketaren bisioa emateko, baizik osasuna eta ongizatearena ere. 1M jarraitzaile ditu.

@Verdeliss Emakume honek haur asko eta denbora gutxi dauka. Influencer ezagun bat izateaz gain, kirolari inplikatu bat da. Horregatik, uste dugu gure produktuak asko lagunduko liokela eta gainera ospea hartuko luke, 2M jarraitzaile dituelako.

- TIKTOK @sensair



Nahiz eta sare sozial hau nahiko berria den, ospe handia hartu du. Pertsona gazteek erabiltzen dute baino geroz eta guraso gehiagok ere. Hori dela eta, bideo motzak igoko ditugu, erakargarriak, produktua gazteetara iristeko. Influencerrak ditu aplikazio honek, edo hobe esanda, tiktokerrak. Baita ere haiekin kolaborazioak egin ditzakegu.

@yolandavaquitayoli Ezaguna da etxearen garbiketa azkarra bermatzeko aholkuak emateagatik. 1.5M jarraitzaile ditu eta esaten da bere aholkuak benetan baliagarriak direla, abantaila eman ahal digunak Sensair saltzerakoan.

@enfermero Jorge Angel Sortzaile ezaguna da, osasun-informazioa modu sinplean zabaltzeagatik, lehen sorospenen aholkuak eskaintzeagatik eta gai medikoak azaltzeagatik ezaguna. Gure produktuari fidegarritasuna emango dio berak hau gomendatzeak. 6M jarraitzaile ditu.

BANAKETA KANALA

Bi bideetan salduko dugu produktua; zeharka eta zuzenean. Webgune baten bidez salduko dugu www.dulppsensair.com izeneko webgunean. Bestalde gure produktua baita ere denda fisikoetan salduko dugu:

1- MediaMarkt denda fisikoetan eta MediaMarkt web ofizialean salduko ditugu (www.mediamarkt.es), Espainia mailan. MediaMarkt elektronika eta etxetresna elektrikoaren salmentan espezializatutako enpresa handia da. Telebistak, ordenagailuak, mugikorrak eta bestelako gailu teknologikoak saltzen ditu.



2- FNAC denda fisikoetan eta FNAC web ofizialen salduko ditugu (www.fnac.es), Espainia mailan. FNAC kultura, teknologia eta aisialdiko produktuak saltzen dituen enpresa da. Liburuak, musika, filmak, gailu elektronikoak eta papergintza produktuak eskaintzen ditu.



3- Carrefour denda fisikoetan salduko ditugu, Espainia mailan. Carrefour banaketa-enpresa handia da, elikagaiak eta kontsumo-produktuak saltzen dituen. Supermerkatu eta hipermerkatuen bidez saltzen du.



4- IKEA denda fisikoetan eta IKEA web ofizialean salduko ditugu (www.ikea.com), Espainia mailan. IKEA altzariak eta etxeko dekorazio-produktuak saltzen dituen enpresa da. Diseinu funtzional eta prezio eskuragarriak eskaintzen ditu.



5- El Corte Inglés denda fisikoetan eta El Corte Inglés web ofizialean (www.elcorteingles.es) salduko ditugu, Espainia mailan. El Corte Inglés merkataritza-gune handien kate bat da, eta mota askotako produktuak eskaintzen ditu: arropa, elikagaiak, elektronika, etxeko artikuluak eta aisialdiko produktuak.



Enpresa hauei gure produktua DHL Express bidez bidaliko ditugu, Estatu mailako eta nazioarteko bidalketak egiten ditu. Oso egokia da produktu elektronikoetarako. Esperientzia handia du enpresa handiekin. Enpresa bakarrarekin kudeaketa erraza. (www.dhl.com)



Lehenengo bidalketaren prestaketa egingo dugu. Paketearen pisua eta neurriak egokiak izan behar dira. Produktua ondo ontziratuta egon behar da. Helbidea, bidaltzailea eta edukia ondo adierazi behar dira. Nazioarteko bidalketan, aduana-dokumentuak prestatu behar dira.

Ondoren, Espainia barruan Lezotik Bilboko DHL puntu batera eramango dituen garraiolari bat kontratatu. DHL-ek paketeak helmugako enpresetara banatuko ditu. Jarraipen-zenbaki batekin bidalketen jarraipena egin.

Jarraituz, Nazioarteko bidalketak Lezotik Bilboko DHL puntu batera eramango ditugu. DHL-ek airez edo itsasoz helmugara eramango ditu. Aduana-dokumentuak prestatu: faktura komertziala, esportazio-adierazpena, baimen bereziak. Bezeroari bidalketa jarraitzeko zenbaki bat eman.

Azkenik, Logistika antolaketa, maiztasuna: astean behin edo eskaeraren arabera. Etiketatzea: Orden zenbakia, enpresaren izena, helbidea eta telefonoa. Jarraipen softwarea: DHL-ek hainbat bidalketa kudeatzeko tresnak eskaintzen ditu, oso erabilgarria enpresa askori bidaltzen badiozu.